



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-09-03

VIII. URTEA 2.064. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Alemanian eta Danimarkan lehiatu dira eskualdeko triatloilariak

TOLOSA Agirresarobek eta Zalakain anaiek maila ona erakutsi dute 4



Carlos Peña. HITZA

Carlos Peña igerilariak erronka berri bati ekingo dio

TOLOSA Zamoran aurkitzen den Ricobayo urtegia zeharkatu nahi du 2



Euskal Herria Plazako hondartzan futboleak ibili ziren atzo txikiak. I. GARCIA

Udarako Azken Festan hondarretan ibili dira futboleak

TOLOSA Gaur boleibolak hartuko dio futbolarik erreleboa 17:00etatik aurrera, 27 talde hondarretaratuko dira eta finalak bihar jokatuko dira 20:00etan 6

Manent taldeak kontzertua eskainiko du gaur

TOLOSA Gau Giro ekimenaren baitan, Plaza Berrian, 'Barrutik' lana aurkeztuko dute 22:30ean 3

Kontzertu denboraldiaren hasiera Bonberenea Sutan-ekin

TOLOSA Bonberenean talde handiak elkartuko dira hilaren 11n 4

Josune Arretxeri azken agurra eman diote

AMASA-VILLABONA Amasako San Martin parrokian burutu da hileta elizkizuna 5



**ELDUAINGO
UDALAK**

**HERRIKO JAIETARA
GONBIDATZEN ZAITUZTE
EKITALDI UGARI**

**MUSIKA MUNDIALA
AFARI ZEIN BAZKARI
GOXO GOXOAK**

Autobus zerbitzua izango da ostiralean eta larunbatean
Tolosako Santa Klaratik
23:00etan Elduainera eta goizeko 4:30ean Tolosara
23:30ean Leitza-Elduain
4:00etan Elduain-Leitza

**KONTZEJU
TABERNAK**



Carlos Peñak 50 kilometroko urtegia zeharkatu nahi du igerian

Tolosa » Zamorako Ricobayo urtegia zeharkatzen gaur hasiko da; lehen egunean 25 km egin nahi ditu.

ERREDAKZIOA

Carlos Peña «abenturazale eta ekintzaile» tolosarrak 21 urte bete ditu aurten igerilari bezala.

Urteurrena ospatu nahian edo ibilbidearekin jarraitu asmoz, gaur erronka berri bati emango dio hasiera. Oraingo honetan Zamoran (Espainia) aurkitzen den Ricobayo urtegia zeharkatzen saiatuko da. 50 kilometroko distantzia bi egunetan burutu nahi du Carlos Peñak.

09:00etan uretara

Neopreno zko jantziarekin eta oinetako hegatsekin sartuko da uretara tolosarra, 09:00etan. Lehen egunean 25 kilometroko ibilbidea egin nahi du. Horrela, bihar beste horrenbesteko lana edukiko luke aurretik.

Bizkarrez egiten du igeri Carlos Peñak eta «itsaso eta ozeanoetan modu horretan dabilen munduko igerilari amateur bakarra bilakatu da».

45 urteko tolosarrak «abenturazalea eta ekintzailea» dela dio. Ingurugiroaren eta bakearen alde burutzen ditu bere erronkak. 2009. urtean adibidez, 130 kilometro dituen Castellako ubidea zeharkatu zuen igerian. Eskoziako Ness Lakua eta Hego Ameriketako Titi-

kaka lakua ere bere lorpenen artean aurkitzen dira.

Ricobayoko urtegia Europako handienetakoa da. 1929an hasi zizuten eraikuntza lanak eta 1934 amaitu. Gertuen duen herria 2 kilometrotara aurkitzen da, Muelas hain zuzen ere.

Afizioa

Carlos Peñaren erronka goseak atzean ez dauka inongo helburu ekonomikorik, hau da, aberasteko esperantzik eta asmorik gabe burutzen ditu ekimen ikusgarri hauek. Bere helburua ingurugiroa eta bakearen aldeko aldarria zabaltea da.

Entrenamenduetarako eta prestakuntzarako denbora aisialdiari eta opor egunei kentzen die tolosarrak.

» ERRONKA


Carlos Peña igerilaria

- **Non.** Zamorako Ricobayo urtegian.
- **Noiz.** Gaur eta bihar.
- **Distantzia.** Bi egunetan 50 kilometro, egun bakoitzean 25 km.
- **Helburua.** Ingurugiroaren eta bakearen aldeko ekintza burutzea.



45 urteko Carlos Peña igerilari tolosarra. HITZA

www.euskalherriko
PLAZA.com



Voith-Gorostidi Elkarteak osatzeko bilera

ERREDAKZIOA

Voith-Gorostidi Elkarteak, hilaren 8an, asteazkena, bilera bat egingo du. Elkarteak osatu nahi dute eta horretarako bazkideak bildu nahi dituzte. Hori dela eta, Tolosako Kultur Etxean elkartuko dira

19:30ean. Gaiaren inguruan interesa duen edonor azaldu daiteke bilerara.


Bestetik, zalantzarik izanez gero edo argibide gehiagotarako, voithgorostidielkartea@yahoo.es helbidera ere idatzi daiteke.

Aitzol Udal Euskaltegian matrikula epea zabalik

ERREDAKZIOA

Aitzol Udal euskaltegia 2010-2011 ikasturtea prestatzen ari da eta oraindik matrikulak egiteko epea zabalik dauka. Matrikula, euskaltegian bertan, 09:00etatik

13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egin ahalko da. Matrikula egiteko azken eguna, hilaren 17a izango da. Informaziorako telefonoak berriz 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Manent barrutik ezagutzeko parada

Musika » Gau Giro ekimenaren barruan, kontzertua emango du gaur talde tolosarrak, Plaza Berrian; 'Barrutik' lana aurkeztuko dute.

ERREDAKZIOA

Orain bi urte bezala, Manent musika talde tolosarrak itxiko du gaur aurtengo Gau Giro ekimenerako antolaturiko kontzertuen egitaraua. Plaza Berrian izango da zuzeneko emanaldia, 22:30etik aurrera.

Denboraldiko biraren bigarren kontzertua izango da, abuztuaren 2lean Ibarren jo ondoren. Tolosako taldeak bigarren lana, *Barrutik* (RDM Independent 2010), aurkeztuko du gaurko kontzertuan.

Disko hau EP bat da, 6 abestiok lana, alegia. Neguan iritsiko da bigarren diskoa, *Kanpotik* izenarekin. Lanaren bigarren zatia izango da hori, beste 6 abestiz osatua. Lehen diskoaren berezitasun gisa *Mokolo* pailazo zenduari eskainitako kantua nabarmendu daiteke; *Pailazo* izeneko abestia Denis Ruiz abeslariak berariko zuen adiskide-tasunaren ondorioz sorturiko keina da.

Irailean murgilduta eta egun guzti barru diskoa kalean izango delarik, lan berriaren sustapenean jardungo dute tolosarrek urria bitarte. Dageneko aurreikusia dute Donostiako Bukowski musika klubean urriaren 16an eskainiko duten zuzeneko, eta gainontzeko datak datozen egunetan itxiko dituzte.

«Kontzertu berezia, etxean»

Denis Ruiz Manent taldeko abeslariak azaltzen duenez, emanaldi berezia izango da gaurkoa, etxean joko baitute: «Ez dakit ziur zergatik, baina berezia da, agian etxeko-

ak hortxe dituzulako, lagunak, senideak... eta euren presentziak gauzak zertxobait aldatzen dituelako beti. Duela bi urte ere Plaza Berrian izan ginen lehen diskoa aurkeztzen eta jendetza bildu zen, beraz, gaurkoan ere errepikatzea eta giro ona sortzea gustatuko litzaike. Jendeak guk adina gozatzaren badu, konforme izango gara».

«Kontzertu indartsua»

Denboraldiko lehenengo kontzertua duela 15 egun izan zuten Ibarren, eta han izandako harrerarekin «gustura» daude. Gaurko emanaldirako «oso prest» daudela dio Ruizek, eta kontzertu «indartsua» aurreikusten du. «Bigarren diskoa oso-osorik aurkeztuko dugu, udazkenean zehar eskainiko dugun kontzertua goitik-behera joko baitugu, ordu eta erdi inguruko emanaldian».

Manent taldea 2008. urtean sortu zen pop elektroniko euskaldunaren erreferentzia izateko helburuz. *Txuribeltzeko amodioa* (RDM Independent, 2008) izan zen euren lehendabiziko lana, eta harreara oso ona izan zuen, *Hisia* lehenengo singlea irratietan maiz entzun ahal izan zelarik. *Barrutik* izenburupean datorkigu euren bigarren lana, «barren-barreneko kantuek osaturik». Taldeko abeslariak dioenez, lehendabiziko diskotik bigarrenera aldaketak nabari daitezke: «Indar handiagoa du, eta era berean gai berriak ere jorratzen ditu. Hori bai, amodioa baztertu gabe, baina beste hainbat motibo aurkituta».



Manent taldeko kideak atzo; gaurko kontzerturako dena prest dute. HITZA

» DATUAK

- **Zer.** Manent musika taldearen kontzertua.
- **Non eta noiz.** Plaza Berrian, gaur 22:30etik aurrera.
- **Musika estiloa.** Pop elektroniko euskalduna.
- **Emanaldia.** *Barrutik* izeneko euren bigarren lana aurkeztuko dute.

- **Taldekieak.** Sei dira taldea osatzen duten kideak: Denis Ruiz (ahotsa eta gitarra akustikoa); Tadeo Urkola (teklatura); Iñigo Agirre (gitarra elektrikoa eta akustikoa); Juanjo Falcon (baxu elektrikoa); Fermin Etxeberria (bateria); Iñigo Asensio (pianoa eta teklaturak).



AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

Kalitatezkoa

EDARRIAK

ELIKAGAIAK

JANTZIAK

DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...

ESKULANGINTZA

400

PREZIOETIKO

SARTU ETA EROSI GUREAN



www.euskalherriko
plaza.com






IRURAKO IKASTOLA KOOP. ELKARTEAK

Langile bat behar du 10-11 ikasturterako

- Hezkuntza laguntzako espezialista jardun osorako

Curriculumak e-mailez bidali behar dira
irura@ikastola.net

Jasoko diren azken eguna: irailak 5a



Aimar Agirresarobe eta Egoitz Zalakain. ENERITZ MAIZ

Eskualdeko triatloilariak maila ona erakutsiz

Kirola » Alemaniako eta Danimarkako ironmanetan lehiatu dira Ilazki Zalakain, Egoitz Zalakain eta Aimar Agirresarobe.

ERREDAKZIOA

Atletico San Sebastian taldeko Aimar Agirresarobe, Ilazki Zalakain eta Egoitz Zalakain triatloilari tolosarrak ironman distantzia luze-ko triatloietan parte hartu dute berriki, emaitza onak lortuz.

Abuztuaren hasieran Aimar

Agirresarobe Alemaniako Regensburg herriko ironmanetan lehiatu zen. Bertan, 37. postuan helmugaratu zen 9 ordu, 17 minutu eta 24 segundoko denborarekin.

Abuztuaren 15ean, berriz, Ilazki Zalakain eta Egoitz Zalakain anaiek Danimarkako Challenge Copenhagen ironman distantzia-ko triatloian hartu zuten parte. 1.500 parte-hartzaile izan zituen probak, eta Egoitzek 12. postua eskuratu zuen 8 ordu, 52 minutu eta 53 segundorekin, eta Ilazkik 97. amaitu zuen, 9 ordu, 46 minutu eta 59 segundoko denborarekin.

Barçako peñen mundu mailako bilkura egingo dute urrian, Zerkausion

Kirola » Urriaren 8an izango da; herriko jaki esanguratsuez osaturiko menua dastatu ahaliko dute.

ERREDAKZIOA

Urriko bigarren asteburuan Barçako peñen 23. mundu mailako bilkura ospatuko dute. Aurten Gipuzkoak hartuko du ekitaldia, eta Tolosara ere gerturatuko dira Bartzelonako futbol taldearen zaleak, Zerkausion afari erraldoia egingo baitute.

Nerea Letamendia Tolosako Udako azoketako zinegotziak ekimenaren aurkezpenaz azaldu bezala, Tolosa Gourmet-en baitan tolosar jaki ohikoak dastatzeko aukera izango dute, bertako musikaz gozatzan duten bitartean. Afariko plater nagusia bertako erretegieta-ko sukaldariak prestatu txuleta izango da.

Afaria larunbatean, hilaren 8an, izango da. Egun horretan, Donostian kalejira egingo dute peña guztiek txarangez lagundurik, ekitaldi ofiziala izango dute Kursaal-en, eta euskal kultura eta gastronomia ezagutu eta dastatzeko aukera izango dute igandea bitarte.



Doctor Deseo talde bilbotarra ariko da Bonberenea Sutan jaialdian. HITZA

Sutan jaialdiak emango dio hasiera aurtengo kontzertu denboraldiari

Musika » Hilaren 11n izango da, eta bost taldek hartuko dute parte; txartelak 15 euroren truke eskuratu ahaliko dira.

ERREDAKZIOA

Aurten ere Bonberenea Sutan jaialdiarekin emango diote Bonbereneakoek hasiera kontzertu denboraldiari. Jaialdi berezia datorren larunbatean, hilaren 11n, izango da, eta bost taldek parte hartuko

dute. Futbol zelaian Sixty Sexers, Doctor Deseo, Ama Say, Atom Rhumba eta Anari ariko dira eta etxe barruan, berriz, TxakaPatata Brothers DJak. Talde entzutesuez gozatu ahaliko da, beraz.

Kontzertuak 21:00etatik aurrera izango diren arren, atak 19:30etik aurrera zabalik egongo direla azaldu dute Bonbereneakoek.

Bestalde, jaialdirako txartelak 15 euroren truke egongo dira salgai Tolosako Eguzki, Orbela, Denak eta Meskal tabernetan.

argazki lehiaketa

XII. HITZA
Argazki Lehiaketa
Animatu eta parte hartu!

NORA BIDLIZ?

argazkiak@tolosaldeko HITZA.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria
Eako Andutza lehiaketa pertsonentzako bida

2. Saria
Getariako Gure Amek bere etxean bi pertsonentzako gau bat pasatzeko aukera

3. Saria
Gorrotxategi Gozoko eskeinitako saski bat

partzaile eta botu...
ko materiala ere z...

berria bekak 2010

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Ezaugarriak:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beke bat.**

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2010-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Txiki geratu da Amasa, Josune Arretxeren azken agurrean

Amasa » Villabona-Amasako zinegotzia gaixotasun larri baten aurka urtebete borrokan aritu ostean hil zen.

ERREDAKZIOA

Asteazken eguerdian eman zituen bere azken taupadak Josune Arretxe Zugarramurdi gaztearen bihotzak. Urtebete minbiziaren aurka borrokan aritu ostean, 29 urte baino ez zituela hil zen Amasan. Amasako San Martin Elizan, atzo izan zen bere agurtzeko hileta elizkizuna.

Lagun asko hurbildu zen, Amasa-Villabonako zinegotzi gaztearen familiari elkartasuna adieraztera. Txiki geratu zen Amasa. Josune Arretxeri, azken agurra jende askok eman nahi izan zion eta batez ere, jende gazte ugari izan zen: familiakoak, lagunak, Udal ordezkariak, ikaskideak, herritarrek, Ezker Abertzaleko kideak, eskualdeko udal ordezkari desberdinak...

San Martin Elizan eta kanpo aldean jendez bete zen.

Hileta elizkizunaren ostean, amasarrak zain zituen arkua eginez. Hain gustuko zituen San Martin jaietako oilasko jokoko ezpatak hartuta zeuden bere lagunak. Jarraian ikurrinak ez ziren falta izan udal ordezkari, lagun eta herritarren eskuetan, arkuari jarraipena emanez, hilerrirako bidean. Agurra ere dantzatu zioten.

2007ko udal hauteskundeetan bigarren alkateorde kargua hartu zuen eta lana fin bete zuen, bere gaixotasun larria agertu bitartean. Besteren artean, bere ardurapean zeuden Ingurugiroa eta mendiak eta Ongizatea eta emakumeak sailak.

Zinegotzi gazteak, uztailearen 31n egin zuen bere azken agerpen publikoa. Duela urtebete hil zen, Remi Ayestaran Udal kidearen urteurreneko ekitaldian izan zen hain zuzen ere.

Villabona-Amasako Udalak urtebeteren buruan bi kide galdutitu.



Lagun asko gerturatu zen Amasara zinegotziari azken agurra ematera. E. MAIZ

Gutunak

Gutun bat adoreari (Josune Arretxeri)

Eskutitz hau ez da inondik ere «agur» bat, ezta «gero arte» bat ere; eskutitz hau «eskerrik asko» bat da. «Eskerrik asko» bat zure laguntzari, urte hauetan egin duzun lan bikainagatik. Sekula ezin izango damerezadina eskertu Amasako festa eta bestelakoak antolatzen jarri duzun gogo eta ilusia.

Giro horretan ezagutu zaitugu Amasako gazte askok eta askok, beti lanean, beti arduratsu, baina baita festazale ere behar zenean. Mila une bizi ahal izan ditugu zure ondoan, mila festa. Sekula ahaztuko ez direnak.

Zure puska handi bat geratuko da gurekin, asko ikasi baitugu zuegandik. Mila irribarre utzi dizkiguzu, mila doinu gure oroimenean grabatuak, abesteko zenuen dohai horrek lagunduta.

Zure anaiak behin esan zigun legez «zuk herria adina maite zaitu herriak ere». Egunez egun zureganatutako maitasuna da gordeko dizuguna, utzi dizuguna.

Ixildu da oilasko-joku goizetako irrintzi hura, baina horrelako unek oroitzeak sortutako malkoak

irribarre zabal baten gainera erortzen dira. Zu falta zaitugulako, zure hutsa dugulako; baina utzi dizkiguzun oroitzearen ezin hobeak direlako.

Eskerrik asko beraz oroitzearen guzti horientatik, eta baita zure izaeragatik ere. Hitz batean esateko ilusioa zinen, gogoa, grina. Eta adorea. Nola azaldu bestela, gaitzaren aurrean azaldukat indarra? Minbizia bizi mina bilakatu zenuen, bizitzeko grina.

Besterik gabe, urte hauek zurekin banatu izana ohore bat dela esan nahi dizugu, harro gaudela zu ondoan eduki izanaz, eta asko ikasi dugula zuegandik.

Eskerrik asko irribarre nekazekin horrentatik (gure zenbat irri zor dizkiogun zureari!), eta zure adorea gatik. Zure indar guztiarekin borrokatu izanagatik, eta hiltzen ari zinenen ere bizitzen erakutsi dizugulako.

Aurten Samartiñak zu gabe antolatuko ditugu, baina zuegandik, zure ilusio hura gurekin harturik; suziri bakoitza zure taupada izan dadin, zueganaino iritsi dadin.

Muxu handi bat bidaltzen dizugu, eta besarkada bat zure senitarreko eta lagunei.

Amasako Gaztiak.

Irudikatu mundua BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso
ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa
- Irudiaren berresoluzio ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8 argiakak handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.

Ezaugarriak:
samsung LE 32C450

Telebista 32 hazbeteko pantaila laua du, iria DNIe+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztien lotzeko.

Urriaren 15ean,
telebista hau zotz egingo dugu
BERRIAren harpidedunen artean,
Elektraren eskutik.

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukerazazu, **BIZIEUSKARAZ** berria

Futbolaren ondoren boleibolaren txanda

Tolosa » Benjamin eta alebin mailako gaztetxoek futbol txapelketek eman diote hasiera Udarako Azken Festari.

ERREDAKZIOA

Euskal Herria plaza itsasorik gabeko hondartza bilakatu da aste-buru honetarako. Udarako Azken Festa izenburupean hainbat ekitaldi antolatu dituzte Tolosako Udalak eta Ezpeleta tabernariak elkarteak. Atzokoan, futboleko ari-tu ziren benjamin eta alebin mailako gazteak; benjaminak lau jokalariz osatutako taldeetan eta alebinak hirukoetan.

Hondar gainean pixka bat kostatatu zitzaion baloia menperatzea, baina gustura aritu ziren gaztetxoak futbolekoan. Jendea ere agertu zen plazara txapelketa bitxia ikustera.



Ahalegin handia egin behar izan zuten gaztetxoek hondar gainean baloia nahi bezala mugitzeko. I. GARCIA



Boleibol Txapelketa

Gaurkoan boleibol txapelketari emango zaio hasiera. Guztira bost lagunez osatutako 27 talde ariko dira lehian, beraz, 135 jokalarik

parte hartuko dute. Gaurko kanporaketan ondoren, bihar 14:00etan ekingo zaio berriro, final laurdenak jokatzuz.

Bihar, boleibol txapelketaz gain,

beste hainbat ekitaldi antolatu dira Udarako Azken Festan. 18:00etan Sexy Gogo's ariko dira eta 19:00etan kapoeira eta batukada saioak izango dira. 20:00etan hasi-

ko dira finalak eta ondoren sari banaketa egingo dute. Festari amaiera emateko, 22:30ean kontzertua izango da Plaza Berrian Eutsi eta Box.A taldeekin.

Eskualdeak Astilleroko traineruan izango ditu ordezkariak Kontxan

» KONTXAKO BANDERA

Sailkapen estropada

San Juan	19:41
Orio	19:57
Kaiku	20:02
Urdaibai	20:03
Hondarribia	20:06
Astilleroko	20:06
Pedreaña	20:16

Arrauna » Anjel Larrañaga Astilleroko bigarren entrenatzailea «oso pozik» agertu da sailkapenarekin; seigarren egin zuten atzo.

IMANOL GARCIA

Kontxako Banderan Tolosaldeko ordezkariak izango dira, Astilleroko seigarren egin baitzuen atzoko sailkapen proban. Anjel Larrañaga tolosarra bigarren entrenatzailea da Astilleron eta Ugaitz Mendizabal anoetarra ordezeko patroia da. «Oso pozik gaude», azaldu du La-

arrañagak. «Esan bezala segundoak oso garestik ziren eta Hondarribi-ekin batera bukatu dugu denboran».

Atzoko estropadan zazpi lehenengoak sailkatzen ziren Kontxako Bandera jokatzeko. San Juanek egin zuen denbora onena. Ondoren, Orio, Kaiku, Urdaibai, Hondarribi, Astilleroko eta Pedreaña sailkatu ziren. San Pedro sailkatu zen zortzigarren eta atzokoan ez bazuen arraun ere egin, bertan aritzen da Jon Ander Agirre tolosarra.

Astillerok lehenengo denbora markatu zuen joaneko luzean. «Barrura joaterakoan bi minutu-

tan olaturik harrapatu ezinik ibili gara. San Juani denak etorri zaizkion bezala, gu lotuta bezala egon gara eta urduri egon gara». Berain apustua kanporakoan estropada galduta ez izatea izan dela azaldu du prestatzaile tolosarrak. «Bost minutu pasatu direnean denbora onena markatzen ari ginen, mutilak pixka bat animatu dira eta denbora onena egiten amaitu dugu ziazabogan», dio Larrañagak. «Gero barrura joaterakoan ikusi dugu olatuek zer ematen duten eta zer kentzen duten».

Larrañaga ez du harritu San Juanen denborak: «Egindako

arraunlariak dira eta olatu guztiak beraiek hartu dituzte eta oso ondo etorri dira. Irla pare horretan olatu serie polit hori tokatu zaio eta oso ondo, elegante, aprobetxatu dituzte». Castro faboritoen artean zegoen zazpi sailkatuen artean sartzeko, baina bederatzigarren egin du. Horrek ere ez du ezustekoan hartu tolosarra: «Ligan ez du ezer ere erakutsi. Txapelketan zerbait erakutsi du, baina Ligan ez du bere maila gehiegi eman. Castroko Bandera traineru guztiarentzat arraroa izan zen. Ezustekoa agian Hondarribia izan da, baina Ligan lehenengo txandan jokatzeko asko

kentzen du. Ezusteko handiagoa izan da San Pedro horrelako eguraldiarekin Banderatik kanpo gelditzea».

Igandera begira, «beste estropada bat da, beste mundu bat da hori», azaldu du Larrañagak. «Ea zer gertatzen den». Bi jardunalditan jokatzeko da Bandera: igande honetan, hilak 5, eta hurrengoan, hilak 12. Ikusi beharko olatuek zer eman eta kentzen duten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Festa

■ **Tolosa.** Saharako haurrak agurtzeko festa Zerkausian: 17:00etan haur jolasak; 19:00etan, ekitaldi politikoa Fronte Polisarioko eta Tolosaldea Sahararekin elkarteko arduradunekin eta Tolosaldeko ordezkari politikoeekin; ondoren, kalejira dultzaineroek alaituta; 20:30ean saharar afaria; eta 22:00etan Estrella Polisaria musika taldea.

Jaiak

■ **Alkiza.** 16:00etan haur jolasak; 21:00etan, herri afaria Ostatu jate txean; 23:00etan, erromeria Elustondo anai-arrebekin.
■ **Elduain.** 17:00etan, suziria eta ondoren puzgarriak herriko txikientzat; 21:30etan, herri afaria Urdelar biltokian; ondoren, DJ Bull Urdelarren; 00:00etan, Vendetta eta Gatillazo taldeak (autobus zerbitzua izango da Tolosa eta Leitza aldera).
■ **Lizartza.** 19:30ean, kalejira Karobitxulo trikitixa taldearekin eta buruhandiez alaiturik; 21:30ean, herri afaria; 00:00etan, txupinazoa eta danborrada isk&bila txarangarekin; ondoren, Giza proiektua eta Kantukitaldeen kontzertuak.

■ **Tolosa.** Izaskun auzoko jaiak: txupinazoa 18:00etan; triki-poteoa 19:30ean; danborrada 22:45ean eta Laket taldea 00:00etan Sputnik plazan.

Kirola

■ **Tolosa.** Berantevilla-Labastida mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak 12rako, Txulato (946 m) eta Toloño (1.241 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5, 943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).
■ **Tolosa.** Saskibaloian jokatu nahi duten neska-mutilak (97 eta 98 urteetan jaiok) 17:30ean dute hitzordua, Usabal kiroldegiko goiko kantzian.

Musika

■ **Tolosa.** Manent taldearen kontzertua Plaza Berrian 22:30ean, Gau Giro egitarauaren barruan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

XII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartu ahalko du nahi duen orok, udan ateratako argazkiak 'argazkiak@tolosaldeko-hitza.info' helbidera bidaliz.

Suaren edertasuna



LEITZA

Ez dago urritira joan beharrik argazki eder bat egiteko. Gorette Loidik Leitzalarreko suari eginiko argazki hauxe horren adibide. GORETTILOIDI

A Agurrak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaiateguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P,K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: